



Koronabirusa

Coronavirus-Covid19

2020ko martxo

Lehentasunak: Osasuna eta pertsonak

Estatuko Gobernuaren ezohiko neurriei buruzko Dekretuaren ondoren enpresetan jarduteko gida

EZINBESTEKO ZERGATIAGATIK EZARRITAKO ERTEak ETA LANALDI MURRIZKETAK	
Prozedura	Enpresek aldi baterako enplegua eten edo murrizteko aukera dute , alarma egoera dela eta.
Eraginak	Kontratua etenda edo denboraz murriztuta geratuko da. Lan agintaritzak egiaztatu behar du ezinbesteko egoera badagoela; ebazpena 5 eguneko epean emango du, Lan Ikuskaritzaren txostenaren ondoren. Kontratuen etenaldia edo lanaldi murrizketa indarrean sartuko dira ezinbesteko egoera eragin duen gertakaria izan den datatik aurrera.
Langabezia	Lan harremana etenda geratuko da lanpostua eta lan baldintza berberak gordetzeko eskubidearekin , ohiz kanpoko baldintzak dirauten artean Ez du kalteordaina jasotzeko eskubiderik sorrarazten. Eragindako pertsonen langabezia jasotzeko eskubidea izango dute, nahiz eta eskatzen den gutxieneko okupazio aldia ez izan. Prestazioa lehen sei hiletan oinarri arautzailearen %70ekoa izango da, eta zazpigarrenetik aurrera %50ekoa. Ohiz kanpoko egoera honegatik erabiltzen den langabezi-aldia ez da aintzat hartzen ezarritako gehienezko epealdiei dagokienez. Enplegu Zerbitzuak langabezia egoera zuzenean ebatziko du, lan agintaritzaren jakinarazpen bitartez. Eskatzeko ere ez dago eperik.
Egoera bereziak	IT baja egoerak, amatasun edo aitatasun baimenak eta oporraldiak ere ERTEan aintzat hartu behar dira.



<p>ERTE ZERGATI EKONOMIKO, TEKNIKO, ORGANIZATIBO EDO PRODUKZIOA MEDIO.</p> <p>2 KASU:</p> <p>1- Aldi baterako etenaldiko ERTEa</p> <p>2- Lanaldi murrizketako ERTEa</p>	<p>Negoziatuko da langileen ordezkariekin, sektoreko ordezkariak gehieneko sindikatuen batzordearekin (langileen ordezkariak ez badago) eta, azkenik, batzorde hau eratu ezean, langileek hautatutako 3 ordezkariak osatutako batzordearekin.</p> <p>Kontsulta aldiaren epea bost egun barru hasi behar da, eta ezin da 7 egunetik gora luzatu. 7 eguneko epe berean Lan Ikuskaritzak ebazpena eman behar du.</p> <p>Aldi baterako etenaldia dakarren ERTE batean zure lan kontratua etenda geratuko da; langabezia kobratuko duzu, ez kalteordaina (lehen sei hiletan kotizazio oinarriaren %70 eta zazpigarrenetik aurrera %50). ERTEa eragin duen zergatia amaitutakoan lanpostura itzuliko zara.</p> <p>Lanaldi murrizketako ERTE batean zure lanaldia %10 eta %70 bitartean murriztu daiteke. Lan egiten duzun orduen arabera soldata jasoko duzu; gainerakoa langabeziatik kobratzen da (paroa). ERTEa eragin duen zergatia amaitutakoan lanaldia lehengora itzuliko da.</p>
<p>Lanaldi irregularra</p>	<p>Itunik ezean, enpresak urtean zehar lanaldiaren %10 modu irregularrean bana dezake.</p> <p>Lanean jarraituko duzu, baina lan egin gabeko orduak enpresari zor dizkiozu. .</p>
<p>Baimen ordaindua</p>	<p>Ez duzu lanera joan behar. Betiko ordainsaria jasoko duzu.</p>
<p>Ordainik gabeko baimena (hitzartua edo hitzarmeneko).</p>	<p>Ez duzu lanera joan behar. Ez duzu ordainsaririk jasoko.</p>
<p>Oporraldia</p>	<p>Bi alderdiek adostuta. Hartu baino bi hilabete lehenago jakingo da. Ez da lanera joan behar. Ohiko lansaria edo hitzarmenak ezartzen duena jasoko duzu.</p>
<p>Ordutegi egokitzapena</p>	<p>Eskubidea honako zaintza betebeharrak dituztenentzat: ezkontidea edo izatezko bikotekidea eta odolkidetasun 2. mailarainoko familiako kideak, adina, gaixotasuna edo ezintasuna medio. Justifikatu beharra dago.</p> <p>Alda daiteke txanda, ordutegia, lanaldi zatitu edo jarraia, lantokia, funtzioak edo lana egiteko modua (telelana).</p> <p>Enpresak eta langileak ahal dela adostu egin behar dute. Ez da alde bakarreko erabakia.</p>



Lanaldi murrizketa	<p>Eskubidea da zaintza betebeharrak dituztenentzat kasuotan: ezkontidea edo izatezko bikotebidea eta familiako kideak odolkidetasun 2. mailaraino. Arrazoiak: adina, gaixotasuna, ezintasuna, zaintza legala.</p> <p>Lanaldiaren %100erainokoa izan daiteke.</p> <p>Enpresari 24 orduko aurrerapenez jakinarazi behar zaio. Soldata lanaldiaren arabera murriztuko da.</p>
Urrutiko lana / telelana	<p>Lanaldi egokitzapen gisa sartua.</p> <p>Jarduerari eusteko lehentasunezko neurri alternatiboa. Ohiko ordainsaria jasoko duzu.</p> <p>Zure etxetik egingo duzu lan.</p>
Koronabirusak jota	<p>Aldi baterako ezintasun egoera, lan istripuaren parekoa.</p> <p>Aldi baterako ezintasun prestazioa jasotzen da. Gertakari profesionalen kotizazio oinarriaren %75.</p>
Koronabirusik ez baina bakartuta	<p>Aldi baterako ezintasun egoera, lan istripuaren parekoa.</p> <p>Aldi baterako ezintasun prestazioa jasotzen da (ikus aurrekoa).</p>
KONTUTAN IZAN BEHARREKOA	<p>Ados ez bazaude: "Jaso dut; ez nago ados"; data.</p> <p>Gorde enpresaren jakinarazpenari buruzko edozein froga.</p> <p>Hemen laburbiltzen diren legezko gutxieneko baldintzak enpresarekin negoziatuz hobetu daitezke.</p>

Kezka eta zalantzak argitze aldera, honako egoitzetara deitu gurekin harremanetan jartzeko

Azpeitia

943 81 34 46

Bilbo

94 403 77 00

Durango

94 621 76 80

Irun

943 63 84 70

Tutera

948 02 62 02

Barakaldo

94 418 02 96

Derio

94 404 31 13

Eibar

943 82 04 42

Iruñea

948 00 79 30

Basauri

94 405 58 88

Donostia

943 00 50 00

Gasteiz

945 15 80 76

Tolosa

943 69 83 14